

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

**Jendaurrean jartzea hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren tasaren kontribuzio erroldak, Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietakoak, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2021eko bigarren seiheleko ordainagiriak**

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2021eko bigarren seiheleko tasa ordaindu behar dutenen errolda osatu da, eta 2021eko irailaren 30eko ebazpen baten bidez onetsi. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza 11 – 01213 Ribabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 10:00etatik 13:00etara.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, aurretik zehaztutako epeetan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko urriaren 29an hasi eta abenduaren 31n bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2021eko azaroaren 4an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epean ordainketarik egiten ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2021eko irailaren 30a

*Lehendakaria*

*JAVIER URIARTE JAIRO*